

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 593/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko ekainaren 17koa, kontratueta betebeharreari aplikatu beharreko legeari buruzkoa (Erroma I).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 593/2008 DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 17 de junio de 2008, sobre la ley aplicable a las obligaciones contractuales (Roma I)» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 177/6, 2008/7/4koa)

**593/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2008ko ekainaren 17koa
kontratueta betebeharrei aplikatu beharreko legeari buruzkoa (Erroma I)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, haren bereziki, 61. artikuluko c) idatz-zatia eta 67. artikuluko 5. paragrafoko bigarren gidoia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute⁽¹⁾,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura⁽²⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparru bati eusteko eta hura garatzeko helburua finkatu du Erkidegoak. Esparru hori pixkanaka garatzen joatearren, barne-merkatuak ondo funtzionatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu; esaterako, mugaz gaindiko eragina duten gai zibiletan lankidetzaren judiziala lortzeko neurriak.

(2) Tratatu 65. artikuluko b) idatz-zatian finkatutakoarekin bat etorritik, lege nahiz jurisdikzio aldeko gatazketan estatu kideetan aplikatu beharreko arauen arteko bateragarritasuna bultzatzen duten neurriak ere bultzatu beharko dira.

(3) Kontseilu Europarrak, 1999ko urriaren 15 eta 16an Tamperen egindako bileran, berretsi zuen epaileen arteko lankidetzarako funtsezko giltzarria dela ebazpen judizialak eta agintari judizialen gainerako erabakiak elkarri onartzeko printzipioa gai zibiletan, eta printzipio hori aplikatzeko neurri-sorta onartzeko eskatu zien Kontseiluari eta Batzordeari.

(4) Kontseiluak onartu zuen Batzordeak eta Kontseiluak gai zibiletan eta merkataritza-gaietan elkarren ebazpen judizialak onartzeko printzipioa aplikatzeko neurriekin osatutako programa komuna, 2000ko azaroaren 30ean⁽³⁾. Programa horretan zehazten dira legeen arteko gatazkei buruzko arauak bateratzearren gaineko neurriak. Hortxe sartzen dira elkarren ebazpen judizialak onartzea errazten duten neurriak, esaterako.

(5) Kontseilu Europarrak 2004ko azaroaren 5ean onartutako Hagako programak⁽⁴⁾ eskatzen zuen kontratueta betebeharrei buruzko legeen arteko gatazkei dagozkien arauak lantzen jarraitzeko (Erroma I).

(6) Barne-merkatuak ondo funtzionatzeko, estatu kideetan indarrean dauden legeen arteko gatazkei buruzko arauak estatu-mailako lege berari buruz jardun behar dute, auzien emaitzak aurreikusteko modukoak izatea erraztu, aplikatu beharreko legeen inguruko segurtasuna areagotu eta ebazpen judizialen joan-etorri askea ziurtatzearen auzia aurreikusteko aukeratutako epaitegia dagoen herrialdea edozein dela ere.

(7) Erregelamendu honetako xedapenek eta aplikazio materialak bat etorri behar dute beste Erregelamendu hauekin: Kontseiluaren 44/2001 (EE) Erregelamendua, 2000ko abenduaren 22koa, gai zibilei eta merkataritza-gaietara buruzko ebazpenei dagozkien eskumen judizialei, onarpenari eta betearazpenari buruzkoa⁽⁵⁾ (Brusela I), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 864/2007 (EE) Erregelamendua, 2007ko uztailaren 11koa, kontratuz kanpoko betebeharrei aplikatu beharreko legeari buruzkoa (Erroma II)⁽⁶⁾.

(1) C 318 EO, 2006/12/23koa, 56. or.

(2) Europar Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 29koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 5koa.

(3) C 12 EO, 2001/01/15koa, 1. or.

(4) C 53 EO, 2005/03/03koa, 1. or.

(5) L 12 EO, 2001/01/16koa, 1. or. Azkenik 1791/2006 (EE) Erregelamendua (L 363 EO, 2006/12/20koa, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

(6) L 199 EO, 2007/07/31koa, 40. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(8) Familia-harremanen barruan sartzen dira ahaidetza, ezkontza, kideasuna eta alboko ahaidetza. Gaia aztertzen duen epaitegia dagoen estatuko legeriaren arabera interpretatu behar dira 1. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren ezkontzaren pareko ondorioak dituzten harremanak eta bestelako familia-harremanak.

(9) Kanbio-letretatik, txeketatik, zor-agirietatik eta bestelako elementu negoziagarrietatik sortutako betebeharretan sartu behar dira ontziratze-agiriak ere, azken tresna horietatik sortutako betebeharrak beren negoziagarritasunari zor zaizkion heinean.

(10) 864/2007 (EE) Erregelamenduko 12. artikulua bidez arautzen dira kontratu bat egin aurretiko hartu-emanetatik sortutako betebeharrak. Hori dela eta, betebeharrak horiek Erregelamendu honen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira.

(11) Kontratuetakoa betebeharrak arautzen dituzten legeen arteko gatazkei buruzko arau-sistemaren giltzarrietako bat izango da aldeek aplikatu beharreko legea aukeratzeko askatasuna izatea.

(12) Aldeek adostuz gero kontratu baten inguruko auziak ebazteko jurisdikzio eskusiboa estatu kide jakin bateko organo jurisdikzional bati edo gehiagori ematea, kontratuko baldintzetan legea aukeratzeko eskubidea argi eta garbi agertzen ote den begiratu beharko da.

(13) Erregelamendu honek ez die aldeei galarazten beren kontratuetan estatu-mailakoa ez den zuzenbide bati nahiz nazioarteko hitzarmen bati erreferentzia egitea.

(14) Erkidegoak, tresna juridiko egoki batean, onartzen baditu kontratuei dagokien zuzenbide materialeko arauak (baldintza orokorrak barne), aldeek arau horiek aplikatzeko aukera izatea aurreikusi beharko da tresna horretan.

(15) Legea aukeratzeko garaian, egoeran eragina duten gainerako garrantziko elementu guztiak aukeratutako legeri dagokionaz bestelako herrialde batean baldin badaude, lege bat ala bestea aukeratzeak ezin du galarazi hitzarmen bidez salbuetsi ezin diren herrialde horretako legearen xedapenak aplikatzea. Arau hori aplikatu beharko da legea aukeratzearekin batera organo jurisdikzional bat aukeratu ala ez. Kontratuko betebeharretan aplikatu beharreko legeri buruzko Hitzarmeneko (1980koa) ⁽¹⁾ («Erromako Hitzarmena») 3. artikuluko 3. paragrafoan aldaketa handirik egiterik ez badago ere, Erregelamendu honetan 864/2007 (EE) Erregelamenduko 14. artikulua dioena bete beharko da, ahal den heinean.

(16) Erregelamendu honen helburu orokorra betetzen laguntzeko, hots, Europako esparru judizialean segurtasun juridikoa lortzeko, aurreikusteko modukoak izan behar dute, hein handi batean, legeen arteko gatazkei buruzko arauak. Dena den, epaileek baloraziorako tartetxo bat izan behar dute, egoerarekin loturarik sendoenak dituen legea zein den erabakitzeko.

(17) Aukeratu ezean aplikatu beharreko legeri dagokionez, «zerbitzuak ematea» eta «salgaiak saltzea» kontzeptuak 44/2001 (EE) Erregelamenduko 5. artikulua aplikatzen denean egiten den moduan interpretatu behar dira, Erregelamendu horrek araututako salgaien salmentari eta zerbitzuak emateari dagokienez. Frankizia-kontratuak eta banaketa-kontratuak zerbitzu-kontratuak diren arren, arau bereziak bete behar dituzte.

(18) Aukeratu ezean aplikatu beharreko legeri dagokionez, negoziazioak egiten diren sistemak hartuko dira alde askotako sistematzat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/39/EE Zuzentarauko —2004ko apirilaren 21ekoa, finantza-tresnen merkaturak buruzkoa ⁽²⁾— 4. artikuluan aipatzen diren merkatu arautuak eta alde askotako negoziazio-sistemak esate baterako, kontraparte zentral batean oinarritu ala ez.

(19) Legeri aukeratu ezean, kontratu-mota zehatzerako zehaztutako arauaren arabera erabakiko da zein lege aplikatu. Kontratu ezin bada sailkatu kontratu-mota zehatzetako baten barruan, edo kontratuko elementuak zehaztutako kontratu-mota batekoa baino gehiagokoa bada, kontratuko zerbitzua eman behar duen aldearen ohiko bizilekua dagoen estatuko legea bete beharko da. Zehaztutako kontratu-mota baten baino gehiagoren barruan sailkatu daitekeen eskubide- eta betebeharrak arautzen duten kontratuen kasuan, kontratuaren prestazio berezia haren grabitate-zentroaren arabera erabakiko da.

(20) Kontratuak 4. artikuluko 1. edo 2. paragrafoetan adierazitakoak bestelako herrialde batekin lotura nabarmenki estuagoak baldin baditu, beste herrialde horretako legea aplikatu behar dela esan beharko da babes-klausula batean. Beste herrialde hori finkatzeko, besteak beste, kontuan hartu beharko da kontratu horrek beste kontratu batekin edo gehiagorekin oso lotura estua duen.

(1) C 334 EO, 2005/12/30ekoa, 1. or.

(2) L 145 EO, 2004/04/30ekoa, 1. or. Azkenik 2008/10/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaruak (L 76 EO, 2008/03/19koa, 33. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(21) Legerik aukeratu ezean, legea ezin bada zehaztu kontratua, kontratu-mota zehaztetako baten barruan sailkatzearen bidez edo kontratuko zerbitzua eman behar duen aldearen ohiko bizilekua dagoen estatuko legearen bidez, kontratuak loturarik estuena duen herrialdeko legea bete beharko du. Herrialde hori finkatzeko, besteak beste, kontuan hartu beharko da kontratu horrek beste kontratu batekin edo gehiagorekin oso lotura estua duen.

(22) Merkantzien garraiorako kontratuen interpretazioari dagokionez, ez da aldaketa sakonik egingo Erromako Hitzarmeneko 4. artikuluko 4. paragrafoko hirugarren esaldian. Bestalde, *merkantziak garraiatzeko kontratuzat* hartuko dira ibilbide bakarreko pleit-kontratuak eta merkantziak garraiatzea helburu nagusizat duten bestelako kontratuak. Erregelamendu honen ondorioetarako, «igorlea» garraiolariarekin garraio-kontratua sinatu duen edozein pertsona izango da eta «garraiolaria», merkantzia-garraioa egiteko konpromisoa hartzen duen kontratuko aldea, garraioa berak nahiz besteren batek egin.

(23) Ahulagotzat jotzen diren aldeek egindako kontratuen kasuan, haien interesetarako arau orokorrak baino onuragarriagoak diren legeen arteko gatazkei buruzko arauen bidez babestu behar dira alde horiek.

(24) Kontsumo-kontratuen kasu zehatzean, legeen arteko gatazkei buruzko arauak aukera eman behar du gatazkak konpontzeko gastuak murrizteko (txiki samarrak izaten dira) eta, halaber, aintzat hartu beharko litzateke urruneko merkataritza-tekniken eboluzioa. 44/2001 (EE) Erregelamendua betetzeko, batetik, «jarduera gidatua» aipatu beharra dago kontsumitzaileak babesteko araua aplikatu ahal izateko eta, bestetik, kontzeptu horri interpretazio harmoniatsua eman behar zaio bai 44/2001 (EE) Erregelamenduan, bai Erregelamendu honetan bertan, Kontseiluak eta Batzordeak 44/2001 (EE) Erregelamenduko 15. artikuluari buruz egindako adierazpen bateratu batean hauxe zehazten dela aipatuz betiere: 15. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatia aplikatu ahal izateko «ez da aski enpresa batek bere jarduerak kontsumitzaileak bizilekua duen estatura edo kontsumitzailea dagoen zenbait estatutara zuzentzea», horrez gain «kontratu bat sinatu beharra dago, jarduera horien esparruan». Adierazpen horretan esaten denarekin jarraituz, «Interneteko gune batean sartzeko aukera egotea ez da aski 15. artikulua aplikatu ahal izateko, nahiz eta gune horretan urruneko kontratuak egiteko gonbidapena egin eta urruneko kontratu horietakoren bat egin izan, edozein bide erabilita. Horri dagokionez, Interneteko gune batean erabilitako hizkuntza edo dirua ez dira izango kontuan hartu beharreko alderdiak».

(25) Kontsumitzaileak ohiko bizilekua duten herrialdeko xedapenen babespean geldituko dira eta xedapen horiek ezin izango dira kontratu bidez baztertu, kontratua merkataritza-jarduera batzuei nahiz profesionalak dagokion herrialdean egindako jarduera profesional batzuei lotuta egin bada. Profesionalak, bere merkataritza-jarduerak nahiz jarduera profesionalak kontsumitzaileak ohiko bizilekua duen herrialdean egiten ez baditu, bere jarduerak herrialde horretara edo zenbait herrialdetara (kontsumitzailearena bane) zuzentzen baditu, eta kontratua jarduera horien esparruan egin bada, babes bera eman beharko zaio kontsumitzaileari.

(26) Erregelamendu honen ondorioetarako, Erregelamendu honetako 6. artikulua bete behar dute bai finantza-zerbitzuek — profesional batek egindako zerbitzu osagarriak eta inbertsio-zerbitzu eta -jarduerak diren aldetik, 2004/39/EE Zuzentarauko I. eranskinen A eta B ataletan aipatutakoari jarraiki— bai inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak saltzeko kontratuek, Kontseiluaren 85/611/EEE Zuzentarauaren —1985eko abenduaren 20koa, balio higigarrietan inbertsio kolektiboak egiteko zenbait erakunderen gaineko xedapenak (legezkoak, arauzkoak eta administrazio alorrekoak) koordinatzen dituen⁽¹⁾— aplikazio-eremuaren barruan egon ala ez. Horrenbestez, balio negoziagarriak jaulkitzeko eskaintza publikoak, nahiz halakoen jaulkipena eta jendearentzako eskaintza arautzen duten baldintzak eta inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen harpidetza eta ordainketa aipatzen direnean, aipatu beharko dira jaulkitzaileak nahiz eskaintzaileak bete beharreko alderdi guztiak ere; ez, ordea, finantza-zerbitzuak ematearekin zerikusia duten alderdiak.

(27) Hainbat salbuespen egin behar dira kontsumo-kontratuetan aplikatu beharreko legeen arteko gatazkari buruzko arau orokorrean. Salbuespen horietako bati jarraiki, arau orokorra ez da aplikatu behar higiezin baten gaineko eskubide erreal bat edo ondasun higiezin bat alokatzea xedetzat duten kontratuetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/47/EE Zuzentarauaren —1994ko urriaren 26koa, higiezinak denbora partekatuan erabiltzeko eskubidea eskuratzeko kontratuetakoz zenbait alderditan eskuratzailak babesteari buruzkoa⁽²⁾— arabera definitutako higiezinak denbora partekatuan erabiltzeko eskubideari buruzko kontratuen kasuan izan ezik.

(1) L 375 EO, 1985/12/31koa, 3. or. Azkenik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/10/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 76 EO, 2008/03/19koa, 42. or.).

(2) L 280 EO, 1994/10/29koa, 83. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(28) Finantza-tresna bat osatzen duten eskubide eta betebeharrak kontsumo-kontratuei aplikatu beharreko arau orokorraren aplikazio-eremutik kanpo gelditzen direla ziurtatu behar da, jaulkitako tresna bakoitzari lege desberdin bat aplikatu behar izatea ekar baitezake horrek, eta haien izaera aldarazi eta negoziazio eta eskaintza suntsikorrek egitea galaraziko luke. Era berean, tresna horiek jaulkitzen eta eskaintzen diren guztietan, jaulkitzaile nahiz eskaintzailearen eta kontsumitzailearen artean sortzen den kontratu-harremanean ez da nahitaez aplikatu behar kontsumitzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legea, jaulkipen nahiz eskaintza baten baldintzetan uniformetasuna bermatu beharra baitago. Printzipio bera aplikatu behar da 4. artikuluko 1. paragrafoko h) idatz-zatian aipatzen diren alde askotako sistemetan, kontsumitzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legeak talkarik egin ez dezan sistema horien esparruaren barruan sinatutako kontratuei aplikatu beharreko arauekin nahiz sistema horien eragilearekin.

(29) Erregelamendu honen ondorioetarako, balio negoziagarriak jaulkitzeko eskaintza publikoak, nahiz halakoen jaulkipena eta jendearentzako eskaintza arautzen duten baldintzak osatzen dituzten eskubide eta betebeharren erreferentzietan eta inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak harpidetu eta ordaintzeari buruzko erreferentzietan, zehaztu behar dira besteak beste honako hauek arautzen dituzten baldintzak ere: balio negoziagarrien nahiz partaidetzen banaketa, harpidetza gehiegi eginez gero dauden eskubideak, eskaintzaren barruan atzera egiteko eta antzeko gaietarako eskubideak eta 10., 11., 12. eta 13. artikuluetan aipatutako gaiak. Horrela, ziurtatu nahi da lege bakar batek arautzen dituela eskaintza baten barruan jaulkitzailearentzat nahiz eskaintzailearentzat lotesleak diren kontratuko alderdi guztiak.

(30) Erregelamendu honen ondorioetarako, 2004/39/EE Zuzentarauko 4. artikuluan aipatzen direnak hartuko dira finantza-tresnatzat eta balio negoziagarritzat.

(31) Erregelamendu honetako xedapenez gain, bete behar da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/26/EE Zuzentarauko —1998ko maiatzaren 19koa, balioak kitatzeko eta ordaintzeko sistemetako kitapenak egiteko sendotasunari buruzkoa⁽³⁾— 2. artikuluko a) letrari jarraiki eratutako sistema gisa sortutako hitzarmen formala ere.

(32) Garraio-kontratuaren eta aseguru-kontratuaren ezaugarri berezien ondorioz, xedapen bereziak onartu behar dira bidaiariak eta polizen tituludunak behar bezala babesten direla ziurtatzeko. Hortaz, 6. artikulua ez da aplikatuko kontratu horien kasuan.

(33) Arrisku handi bat bere gain hartzen ez duen aseguru-kontratu batek hainbat arrisku hartzen baditu bere gain, eta horietako bat, gutxienez, estatu kide batean badago eta beste bat gutxienez hirugarren herrialde batean, estatu kideari edo estatuei dagokion arriskuari edo dagozkien arriskuei bakarrik aplikatuko zaizkie Erregelamendu honetan aseguru-kontratuei buruz ematen diren xedapen bereziak.

(34) Banakako lan-kontratuari buruzko arauaz gain, bete behar dira langilea lanera joan den herrialdean indarrean dauden arauak ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 96/71/EE Zuzentaruarekin —1996ko abenduaren 16koa, langileak zerbitzuak emateko lanera batetik bestera joateari buruzkoa⁽⁴⁾— bat etorritzat.

(35) Langileei ezin zaie kendu hitzarmen bidez baztertu ezin diren edo bakarrik haien onerako baztertu daitezkeen xedapenek ematen duten babesa.

(36) Banakako lan-kontratuei dagokienez, langilea beste herrialde batean aldi baterako ari dela ulertuko da, atzerrian egin beharreko lana egin eta gero langilea aurreko lanera itzultzekoa bada. Hasierako enplegu-emailearekin edo haren enpresatalde bereko enplegu-emaile batekin lan-kontratu berria eginda ere, langilea beste herrialde batean aldi baterako ari dela ulertuko da.

(37) Interes publikoko arrazoiak direla eta, ordena publikoan nahiz polizia-legeetan oinarritutako salbuespenak ezarri ahal izango dituzte estatu kideetako epaitegiek, ezohiko kasuetan. Ondo bereizi behar dira «polizia-legea» kontzeptua eta «hitzarmen bidez baztertu ezineko xedapenak» terminoa, eta lehenbiziko hura modu estuagoan interpretatu behar da, gainera.

(38) Kredituak borondatez lagatzen direnean, «erlazioak» terminoak argitu behar du 14. artikuluko 1. paragrafoa aplikatzen zaiela lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean lagatutako kredituaren alderdi juridiko errealei ere, alderdi horiek betebeharrak arautzen dituen zuzenbideko alderdietatik berezita tratatzen diren lege-antolamenduen kasuetan. Dena den,

(3) L 166 EO, 1998/06/11koa, 45. or.

(4) L 18 EO, 1997/06/11koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«erlazioak» terminoa ez da hedatuko lagatzaileen eta lagapen-hartzaileen artean egon daitezkeen erlazio guztietara. Kredituak borondatez lagatzeari eta subrogazio konbentzionalari dagozkien aurretiazko auziak, adibidez, hortik kanpo geldituko dira. Kredituak borondatez lagatzearekin eta subrogazio konbentzionalarekin zuzenean erlazioa duten alderdietara mugatu behar da kontzeptu hori, soil-soilik.

(39) Segurtasun juridikoa ziurtatzearen, argi eta garbi zehaztu behar da ohiko bizilekua zer den, sozietateen eta elkarte nahiz pertsona juridikoen kasuan, bereziki. 44/2001 (EE) Erregelamenduko 60. artikuluko 1. paragrafoak dioenez bestela (hiru irizpide proposatzen ditu), legeen arteko gatazkari buruzko arauak irizpide bakarrera mugatu behar du; bestela, aldeek ezin izango dute aurrekusi beren egoeran zein lege aplikatu behar den.

(40) Legeen arteko gatazkei buruzko arauak tresna desberdinak proposatzen dituzteneko edo arauen artean aldeak agertzen direneko egoerak saihestu behar dira. Erregelamendu honek, halere, ez du baztertuko kontratuetakote betebeharrei dagozkien legeen arteko gatazkei buruzko arauak gai zehatzei buruzko Erkidegoko zuzenbideko xedapenetan sartzeko aukera. Erregelamendu hau betetzeak ez ditu baztertzen barne-merkatuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko xedapenak finkatzeko dauden bestelako tresnak, Erregelamendu honek izendatutako legearekin batera aplikatzerik ez dagoen kasuetan. Aplikatu beharreko legerari buruz Erregelamendu honetan ematen diren xedapenek ez dute galaraziko ondasun eta zerbitzuen zirkulazio askea. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/31/EE Zuzentarauak —2000ko ekainaren 8koa, informazio-gizarteko zerbitzuen zenbait alderdi juridikori buruzkoa, barne-merkatuko merkataritza elektronikoiari buruzkoa bereziki (merkataritza elektronikoiari buruzko zuzentaraua) ⁽¹⁾— arautzen du zirkulazio aske hori.

(41) Estatu kideek hartutako nazioarteko hitzarmenak betetzearen, Erregelamendu hau aplikatzeko garaian ez dira baztertuko Erregelamendua onartzen denean estatu kide batek edo gehiagok dauzkaten nazioarteko itunak. Arauak eskuraerrazagoak egitearren, dagozkion hitzarmenak *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu behar ditu Batzordeak, estatu kideek emandako informazioa oinarritzat hartuta.

(42) Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztu beharko die estatu kideek, kasu berezi eta ezohikoetan, beren izenean beste herrialde batzuekin, gai sektorialeki buruz, kontratuetakote betebeharrei aplikatu beharreko legeriari buruzko xedapenak dituzten hitzarmenak negoziatu eta sinatu ahal izateko baldintza eta prozedurak zehazten dituen proposamena.

(43) Erregelamendu honen helburua estatu kideek beren kasa bakarrik lortzerik ez dutenez eta, ondorioz, Erregelamendu honen hedadura eta ondorioak Erkidego mailan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez da joaten helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago.

(44) Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarrerari buruzko Protokoloko 3. artikuluari jarraiki —Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren eranskina—, Irlandak jakinarazi du parte hartu nahi duela Erregelamendu hau onartzen eta aplikatzen.

(45) Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarrerari buruzko Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki —Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren eranskina—, eta Protokoloko horretako 4. artikulua alde batera utzi gabe, Erresuma Batuak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartzen eta, hortaz, Erregelamendua ez da loteslea beretzat eta ez dauka aplikatu beharrik.

(46) Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki —Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren eranskina—, Danimarkak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartzen eta, hortaz, Erregelamendua ez da loteslea beretzat eta ez dauka aplikatu beharrik.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua

Aplikazio-eremu materiala

(1) L 178 EO, 2000/07/17koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erregelamendu hau gai zibilei eta merkataritza-gaiei buruzko kontratuetako betebeharrari aplikatuko zaie, legeen arteko gatazkarik sortzen denean.

Ez da aplikatuko, zerga, muga-zerga eta administrazio gaiekin zerikusia duten auzietan.

2. Erregelamendu honen aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira:

- a) pertsona fisikoen gaitasuna eta egoera zibila, 13. artikuluan agindutakoa alde batera utzi gabe;
- b) familia-harremanetatik eta harreman horiei aplikatu beharreko legeriaren arabera ondorio baliokidea duten harremanetatik sortutako betebeharrak, mantenua ordaintzeko betebeharra barne;
- c) ezkontza-erregimen ekonomikoetatik, aplikatu beharreko legeriaren arabera ezkontzaren ondorio baliokidea duten harremanetatik sortutako erregimen ekonomikoetatik, eta testamentu eta ondorengotzetatik sortutako betebeharrak;
- d) kanbio-letretatik, txeketatik eta zor-agirietatik sortutako betebeharrak, bai eta beste tresna negoziagarri batzuetatik sortutakoak ere, azken tresna horietatik sortutako betebeharrak beren izaera negoziagarritik sortuak diren heinean;
- e) eskumeneko auzitegia aukeratzeko eta arbitrajea erabiltzeko itunak;
- f) sozietate, elkarte eta bestelako pertsona juridikoei dagokien zuzenbidearekin zerikusia duten auziak, sozietateak, elkartek eta bestelako pertsona juridikoak, erregistro bidez nahiz bestela, eta haien gaitasun juridikoari, barne-funtzionamenduari eta desegiteari buruzkoak, bai eta bazkide eta administratzaileek zeregin horretan jardunez sozietatearen nahiz bestelako pertsona juridikoen betebeharren aurrean duten erantzukizun personalari dagozkionak ere;
- g) bitartekari batek bere ordezkutua beste inoren aurrean behartzeko edo erakunde batek sozietate, elkarte nahiz pertsona juridiko bat behartzeko aukera;
- h) trust-en eraketa, eta sortzaile, administratzaile eta onuradunen arteko erlazioak;
- i) kontratu bat sinatu aurretiko hartu-emanetatik sortutako betebeharrak;
- j) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/83/EE Zuzentarauko —2002ko azaroaren 5ekoa, bizi-aseguruei buruzkoa ⁽¹⁾— 2. artikuluan aipatzen diren enpresez bestelako erakundeek egindako eragiketetatik sortutako aseguru-kontratuak, inoren konturako langileentzako nahiz beren kontura jardunaz enpresa batentzat edo enpresa-talde batentzat nahiz jarduera profesional baten edo jarduera-multzo batean diharduten langileentzako prestazioak ematea helburutzat dutenak, heriotza, biziraupena, jarduerak murriztea nahiz etetea, lanarekin zerikusia duen gaixotasuna edo laneko istripua gertatuz gero.

3. Erregelamendu hau ez da proban ez prozesuan aplikatuko, 18. artikulua dioena alde batera utzi gabe.

4. Erregelamendu honen ondorioetarako, Erregelamendu hau aplikatzen den estatu kide guztiak hartuko dira «estatu kideztat». Halere, 3. artikuluko 4. paragrafoari eta 7. artikuluari dagokienez, estatu kide guztiak sartuko dira «estatu kideen» barruan.

2. artikulua

Aplikazio unibertsala

Erregelamendu honetan finkatutako legea estatu kide batekoa ez den kasuetan ere aplikatuko da.

II. KAPITULUA

ARAU UNIFORMEAK

(1) L 345 EO, 2002/12/19koa, 1. or. Azkenik 2008/19/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 76 EO, 2008/03/19koa, 44. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. artikulua

Aukeratzeko askatasuna

1. Aldeek aukeratutako legeak arautuko du kontratua. Aukeratutako legea berariaz adierazi beharko da edo zalantzarik gabe ondorioztatu beharko da kontratuko xehetasunetatik nahiz kasuari lotutako gorabeheretatik. Aukeraketa horri jarraiki, kontratu osoan nahiz kontratuaren zati batean aplikatu beharreko legea zehaztu ahal izango dute aldeek.
2. Kontratua aurretik arautzen zuenaz bestelako lege batek arautzea adostu ahal izango dute aldeek, edozein unetan, bai artikulua honi jarraiki egindako aukeraketa baten ondorioz bai Erregelamendu honetako beste xedapenen baten ondorioz. Aplikatu beharreko legea kontratua sinatu eta gero aldatuz gero, horrek ez du eraginik izango 11. artikuluari jarraiki kontratuari dagokion baliozkotasun formalean edo besteekiko eskubideetan.
3. Egoerarekin zerikusia duten gainerako elementu guztiak aukeratutako legeari dagokion herrialdeaz bestelako herrialde batean baldin badaude legea aukeratzeko garaian, aldeek egindako aukeraketak ez du galaraziko hitzarmen bidez baztertu ezin diren beste herrialde horretako lege-xedapenak aplikatzea.
4. Egoerarekin zerikusia duten gainerako elementu guztiak estatu kide batean edo gehiagotan baldin badaude legea aukeratzeko garaian, aldeek estatu kidekoa ez den lege bat aukeratzeko badute, horrek ez du galaraziko Erkidegoko zuzenbideko xedapenak aplikatzea, hitzarmen bidez baztertu ezin diren Erkidegoko zuzenbideko xedapenak foroko estatuan aplikatzen diren moduan.
- 5., 10., 11. eta 13. artikuluetan finkatutako xedapenekin bat etorritik egingo da taldeek aplikatu beharreko legeen aukeraketa eta aukeraketa horren baliozkotzea.

4. artikulua

Besterik aukeratu ezean aplikatu beharreko legea

1. 3. artikuluekin bat etorritik legerik aukeratu ezean, eta 5-8. artikuluetan agindutakoa alde batera utzi gabe, honela erabakiko da kontratuari aplikatu beharreko legea:
 - a) salgaiak salerosteko kontratua arautuko da saltzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera;
 - b) zerbitzuak emateko kontratua arautuko da zerbitzu-emaeleak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera;
 - c) higiezinaren gaineko eskubide erreal bati edo ondasun higiezin baten alokairuari dagokion kontratua arautuko da ondasun higiezina dagoen herrialdeko legearen arabera;
 - d) idatz-zatian esandakoa gorabehera, ondasun higiezin bat gehienez ere elkarren segidako sei hilabeteetan alokatzeko kontratua arautuko da jabeak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera, baldin eta maizterra pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua herrialde berean badu;
 - e) frankizia-kontratua arautuko da frankizia-hartzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera;
 - f) banaketa-kontratua arautuko da banatzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera;
 - g) ondasunak enkante bidez saltzeko kontratua arautuko da enkantea egiten den herrialdeko legearen arabera, leku hori zehaztea baldin badago;
 - h) alde askotako sistema batean egindako kontratu batek lege bakarrak araututako arau ez diskrezionaleri jarraiki beste alde ugariaren finantza-tresnak salerosteko interes ugariak biltzen baditu edo bil baditzake, 2004/39/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 1. paragrafoko 17. puntuan agindutako moduan, lege horren arabera arautuko da.
2. Kontratua ez bada 1. paragrafoaren barruan sartzen edo kontratuko elementuek 1. paragrafoko a)-h) arteko idatz-zati batekin baino gehiagorekin zerikusia badute, kontratuko prestazioa eman behar duen aldeak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera arautuko da kontratua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Gorabehera guztiak kontuan hartuta, ikusten bada kontratuak lotura nabarmenki estuagoak dituela 1. edo 2. paragrafoan aipatutakoaz bestelako herrialderen batekin, beste herrialde horretako legea aplikatuko da.

4. Aplikatu beharreko legea ezin bada zehaztu 1. edo 2. artikuluei jarraiki, loturarik estuenak dituen herrialdeko legearen arabera arautuko da kontratua.

5. artikulua

Garraio-kontratuak

1. 3. artikuluari jarraiki merkantziak garraiatzeko kontratuari aplikatu beharreko legea aukeratzen ez bada, garraiolariak ohiko bizilekua duen herrialdeko legea izango da aplikatu beharrekoa, merkantziak jasotzeko edo entregatzeko lekua, edo bidaltzailearen ohiko bizilekua ere herrialde horretan baldin badaude. Baldintza horiek betetzen ez badira, aldeek adostutako entrega-lekua dagoen herrialdeko legea aplikatuko da.

2. 2. paragrafoari jarraiki aldeek ez badute bidaiariak garraiatzeko kontratuari aplikatu beharreko legea aukeratzen, bidaiariak ohiko bizilekua duen herrialdeko legea izango da aplikatu beharrekoa, abiapuntua edo iristeko lekua ere herrialde horretan baldin badaude. Baldintza horiek betetzen ez badira, garraiolariak ohiko bizilekua duen herrialdeko legea aplikatuko da.

3. artikuluari jarraiki, bidaiariak garraiatzeko kontratu bati aplikatu beharreko legea honako baldintza hauek betetzen dituen herrialdeko legea izatea bakarrik erabakitzea daukate aldeek:

- a) bidaiariak ohiko bizilekua duen herrialdekoa, edo
- b) garraiolariak ohiko bizilekua duen herrialdekoa, edo
- c) garraiolariak bere administrazio nagusia duen lekukoa, edo
- d) abiatzeko lekukoa, edo
- e) iristeko lekukoa.

3. Legerik aukeratu ez eta gorabehera guztiak kontuan hartuta ikusten bada kontratuak lotura nabarmenki estuagoak dituela 1. edo 2. paragrafoan aipatutakoaz bestelako herrialderen batekin, beste herrialde horretako legea aplikatuko da.

6. artikulua

Kontsumo-kontratuak

1. 5. eta 7. artikuluek alde batera utzi gabe, pertsona fisiko batek («kontsumitzailea») kontratu bat sinatzen badu bere jarduera komertzial nahiz profesionalek kanpokotzat jo daitekeen erabilera baterako bere jarduera komertzial nahiz profesionala egiten ari den beste pertsona batekin («profesionala»), kontsumitzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera arautuko da kontratu hori, baldin eta profesionalak:

- a) bere jarduera komertzial edo profesionalak kontsumitzaileak ohiko bizilekua duen herrialdean egiten baditu, edo
- b) edozein bide erabiliz jarduera horiek herrialde horretara edo hainbat herrialdetara, herrialde hori barne, zuzentzen baditu, eta jarduera horien esparrua kontratuan sartzen baldin bada.

2. 1. paragrafoan esandakoa gorabehera, 3. artikuluekin bat etorritik, aldeek aukeratu dezakete 1. paragrafoko baldintzak betetzen dituen kontratuari aplikatu beharreko legea. Halere, aukeraketa horrek ezin izango du ondorioztat izan, aukeratu ezean, 1. paragrafoari jarraiki aplikatzeko izango litzatekeen legearekin bat etorritik egindako hitzarmenaren bidez baztertu ezin diren xedapenek ematen duten babesa galtzea kontsumitzaileak.

3. 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aipatutako baldintzak betetzen ez badira, 3. eta 4. artikuluekin bat etorritik finkatuko da kontsumitzaile baten eta profesional baten arteko kontratu bati aplikatu beharreko legea.

4. 1. eta 2. paragrafoak ez dira aplikatuko kontratu hauetan:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) zerbitzuak emateko kontratuetan, zerbitzu horiek kontsumitzaileak ohiko bizilekua duenaz bestelako herrialde batean ematen zaizkionean kontsumitzaileari;
- b) Kontseiluaren 90/314/EEE Zuzentarauan —1990eko ekainaren 13koa, bidaia konbinatuei, opor konbinatuei eta zirkuitu konbinatuei buruzkoa ⁽¹⁾— emandako definizioarekin bat datorren bidaia konbinatu bati dagozkion kontratuez bestelako garraio-kontratuetan;
- c) 94/47/EE Zuzentarauan emandako definizioarekin bat datorren higiezinak denbora partekatuko erregimenean erabiltzeko eskubideari dagozkion kontratuez bestelako ondasun higiezinak alokatzeko kontratuetan nahiz higiezinak eskubide errealak arautzen dituzten kontratuetan;
- d) finantza-tresna osatzen duten eskubide eta betebeharretan; balio negoziagarriak jaulkitzea, jendeari saltzeko eskaintzak edo erosteko eskaintza publikoak arautzen dituzten baldintzak eratan dituzten eskubide eta betebeharretan, eta inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen harpidetza eta ordainketan, halakoak finantza-zerbitzuak ez diren kasuetan;
- e) 4. artikuluko 1. paragrafoko h) idatz-zatiaren aplikazio-eremuan sartzen den sistema baten barruan egindako kontratuetan.

7. artikulua

Aseguru-kontratuak

1. Artikulu hau aplikatuko zaie, batetik, 2. paragrafoan aipatzen diren kontratuei, aseguratutako arriskua estatu kide batean egon ala ez eta, bestetik, estatu kide baten barruan dauden arriskuak aseguratzen dituzten gainerako kontratuei. Berraseguru-kontratuetan ez da aplikatuko.

2. Aldeek Erregelamendu honekin bat etorritik aukeratutako legearen arabera arautuko dira Kontseiluaren 73/239/EEE lehen Zuzentarauko —1973ko uztailaren 24koa, bizi-aseguruaz bestelako aseguru zuzenen jardueran jarduteko legezko, arauzko eta administrazio alorreko xedapenak koordinatzeari buruzkoa ⁽²⁾— 5. artikuluko d) idatz-zatiari jarraiki arrisku handi bat aseguratzen duten kontratu guztiak.

Aldeek ez badute aukeratu aplikatu beharreko legea, aseguratzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legeak arautuko du aseguru-kontrata. Gorabehera guztiak kontuan hartuta ikusten bada kontratuak lotura nabarmenki estuagoak dituela bestelako herrialderen batekin, beste herrialde horretako legea aplikatuko da.

3. 2. paragrafoan aipatutakoaz bestelako aseguru-kontratuen kasuan, 3. artikuluari jarraiki, aldeek honako lege hauek bakarrik aukeratu ahal izango dituzte:

- a) kontratua egiten den unean arriskua dagoen estatu kideko legea;
- b) aseguru-hartzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legea;
- c) bizi-aseguruaren kasuan, aseguru-hartzailearen estatuko legea;
- d) arriskua dagoen estatuaz bestelako estatu batean gertatutako istripuetara mugatutako arriskuak aseguratzen dituzten kontratuen kasuan, beste estatu horretako legea;
- e) paragrafo honetan aipatutako aseguru-kontratuaren hartzaileak jarduera komertzial edo industrial bat edo lanbide liberal bat egiten badu eta aseguru-kontratuak jarduera horrekin zerikusia duen arrisku bi edo gehiago aseguratzen baditu eta arrisku horiek estatu kide desberdinetan badaude, estatu kide horietako edozeinetako legea edo aseguru-hartzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legea;

(1) L 158 EO, 1990/06/23koa, 59. or.

(2) L 228 EO, 1973/08/16koa, 3. or. Azkenik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/68/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 323 EO, 2005/12/09koa, 1. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a), b) edo e) idatz-zatietan aipatutako kasuetan, bertan aipatzen diren estatuek aseguru-kontratuari aplikatu beharreko legea aukeratzeko askatasun handiagoa ematen badute, aldeek askatasun hori erabili ahal izango dute.

Aplikatu beharreko legea aldeek aukeratu ez badute, paragrafo honekin bat etorritik, kontratua egiten den unean arriskua dagoen estatuko legeak arautuko du aseguru-kontratua.

4. Beste arau osagarri hauek bete beharko dira estatu kideak aseguru hartzeko betebeharra finkatzen duen arriskuak aseguratzeke kontratuetan:

a) betebeharra ezartzen duen estatua aseguru horretarako finkatutako xedapen espezifikoekin bat baldin badator bakarrik bete beharko du baldintza hori aseguru-kontratuak. Nahitaezko aseguru kasuan, arriskua dagoen estatuko legearen eta aseguru hartzeko betebeharra ezartzen duen estatuko legearen artean kontraesanik egonez gero, azken legea gailenduko da;

b) 2. eta 3. paragrafoetan agindutakoa gorabehera, estatu batek erabaki ahal izango du aseguru-kontratua aseguru hartzeko betebeharra ezartzen duen estatuko legeak arautu behar duela.

5. 3. paragrafoko hirugarren lerrokadaren eta 4. paragrafoaren ondorioetarako, kontratuak estatu batean baino gehiagotan dauden arriskuak aseguratzeko baditu, kontratu hori hainbat kontratuz osatuta dagoela ulertuko da, eta kontratu horietako bakoitzak estatu bakar bati egingo dio erreferentzia.

6. Artikulu honen ondorioetarako, arriskua dagoen herrialdea Kontseiluaren 88/357/EEE bigarren Zuzentarauko —1988ko ekainaren 22koa, bizi-aseguruaz bestelako aseguru zuzenari buruzko legezko, arauzko eta administrazio alorreko xedapenak koordinatzeari buruzkoa, zerbitzuen prestazio askea modu eraginkorrean ematea errazteko xedapenak finkatzen dituen⁽¹⁾— 2. artikuluko d) idatz-zatiaren arabera finkatuko da. Bizi-aseguru kasuan, aldiz, konpromisoaren herrialdea izango da arriskua dagoen herrialdea, 2002/83/EE Zuzentarauko 1. artikuluko 1. paragrafoko g) idatz-zatiaren zentzuan.

8. artikulua

Banakako lan-kontratuak

1. Banakako lan-kontratuak arautuko dira aldeek 3. artikuluekin bat etorritik aukeratutako legearen arabera. Halere, aukeraketa honen ondorioz ezin izango da, aukeraketarik egin ezean, artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoei jarraiki aplikatu beharko litzatekeen legeari jarraiki hartutako erabakiaren bidez alde batera utzi eziniko xedapenen babesik gabe utzi langilea.

2. Banakako lan-kontratuari aplikatu beharreko legea aldeek aukeratu ez bada, kontratuari jarraiki langileak ohiko lana egiten duen herrialdeko (lana bertan egiten badu edo, bestela, handik egiten badu) legeak arautuko du lan-kontratua. Ez da ulertuko lan egiteko ohiko herrialdea aldatzen denik, langileak lana bolada batean beste herrialde batean egiten badu.

3. 2. paragrafoari jarraiki aplikatu beharreko legerik ezin bada zehaztu, langilea kontratatatu duen erakundea dagoen herrialdeko legea izango da kontratua arautuko duena.

4. Gorabehera guztiak kontuan hartuta, ikusten bada kontratuak lotura nabarmenki estuagoak dituela 2. edo 3. paragrafoan aipatutakoaz bestelako herrialderen batekin, beste herrialde horretako legea aplikatuko da.

9. artikulua

Polizia-legeak

1. Herrialde batek bere interes publikoak (antolaketa politiko, sozial nahiz ekonomikoa, adibidez) babesteko funtsezkotzat jotzen duen bete beharreko xedapena da polizia-legea, eta aplikatu beharra dago bere aplikazio-eremu osoaren barruan sartzen den egoera guztietan, Erregelamendu honi jarraiki kontratuari aplikatu beharreko legea edozein dela ere.

2. Erregelamendu honetan jasotako xedapenek ez dute foru-legeko polizia-legeen aplikazioa mugatuko.

(1) L 172 EO, 1988/07/04koa, 1. or. Azkenik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/14/EE Zuzentaruak aldatutako Zuzentaru (L 149 EO, 2005/06/11koa, 14. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Era berean, kontratutik eratorritako betebeharrak bete behar diren edo gauzatuak izan diren herrialdeko polizia-legeak ere betearazi ahal izango dira, legeok kontratua betetzea legez kontratatzat jotzen badute. Aginduzko xedapen horiek betearazi behar diren erabakitzeke, haien izaera eta xedea hartuko dira kontuan, betetzeak nahiz ez betetzeak eragingo lituzkeen ondorioekin batera.

10. artikulua

Onespina eta baliozkotasun materiala

1. Kontratua (edo kontratu bateko edozein xedapen) eta horren baliozkotasuna kontratua edo xedapena Erregelamendu honi jarraiki aplikatu beharko litzatekeen legearen mende geldituko dira.

2. Halere, beren onspena eman ez dutela ikusteko, ohiko bizilekua duten herrialdeko legera jo ahal izango dute aldeek, zirkunstantzien ondorioz ez bada arrazoizkoa zehaztea alde horren portaeraren ondorio juridikoa zein izango den, 1. paragrafoan aurreikusitako legearen arabera.

11. artikulua

Baliozkotasun formal

1. Kontratua sinatzeko garaian herrialde berean dauden pertsonen, edo haien ordezkarien, artean sinatutako kontratu bat baliozkoa izango da forma aldetik, Erregelamendu honen funtsari dagokionez hura arautzen duen legeak edo kontratua sinatu den herrialdeko legeak finkatutako forma aldeko baldintzak betetzen baditu.

2. Kontratua sinatzeko garaian herrialde desberdinetan dauden pertsonen, edo haien ordezkarien, artean sinatutako kontratu bat baliozkoa izango da forma aldetik, betetzen baditu Erregelamendu honen funtsari dagokionez hura arautzen duen legeak edo, kontratua sinatzean, aldeetako edozein, edo haien ordezkarietako edozein, dagoen herrialdeko legeak, edo une hartan aldeetako edozeinek daukan ohiko bizilekuko herrialdean finkatutako forma aldeko baldintzak.

3. Sinatutako nahiz sinatzeke dagoen kontratu bati buruzko egintza juridiko aldebakar bat baliozkoa izango da forma aldetik, betetzen baditu Erregelamendu honi jarraiki kontratuaren funtsa arautzen duten edo arautuko duten forma aldeko baldintzak, egintza egin den herrialdeko legea nahiz egintza egin duenak une horretan ohiko bizilekua duen herrialdeko legea.

4. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. paragrafoetako xedapenak ez dira aplikatuko 6. artikulua aplikazio-eremuan sartzen diren kontratuetan. Kontratuon forma arautuko da kontsumitzaileak ohiko bizilekua duen herrialdeko legearen arabera.

5. 1-4. paragrafoetan finkatutakoa alde batera utzi gabe, ondasun higiezin baten gaineko eskubide erreal bat edo ondasun higiezin baten alokairua arautzen duten kontratu guztiak higiezin dagoen herrialdeko legeetan jasotako arauak bete beharko dituzte formari dagokionez, baldin eta lege horri jarraiki:

a) arau horien aplikazioa kontratua egiten den herrialdearekiko eta kontratua arautzen duen legearekiko independentea bada, eta

b) arau horiek ezin badira hitzarmen bidez baztertu.

12. artikulua

Aplikatu beharreko legearen eremua

1. Erregelamendu honi jarraiki kontratuari aplikatu beharreko legeak alderdi hauek arautuko ditu, zehazki:

a) haren interpretazioa;

b) eragiten dituen betebeharren betearazpena;

c) dagokion zuzenbide prozesalak auzitegiari emandako eskumenen barruan, betebeharrak osorik nahiz zati batean ez betetzearen ondorioak, kaltearen ebaluazioa barne, arau juridikoek agintzen duten neurrian;

d) betebeharrak amaitzeko modu desberdinak, bai eta epe baten amaieran oinarritutako preskripzio eta iraungipena ere;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

e) kontratua baliogabe gelditzearen ondorioak.

2. Kontratua betetzeko moduei eta betetze hori akastuna izanez gero hartu beharreko neurriei dagokienez, kontratua betetzen den herrialdeko legea hartuko da kontuan.

13. artikulua

Ezgaitasuna

Herrialde berean dauden pertsonen artean egindako kontratuetan, herrialde horretako legearekin bat etorriz gaitasuna duten pertsona fisikoek beste herrialde bateko legeri jarraiki ezgaitasuna dutela adierazi ahal izango dute baldin eta, kontratua sinatu den unean, beste aldeak ezgaitasun horren berri badu edo ez izatekotan bere utzikeriaren ondorioz bada.

14. artikulua

Kredituen lagapen eta subrogazio konbentzionala

1. Pertsona baten («zorduna») aurkako eskubide baten lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko edo subrogatzaile eta subrogazio-hartzailearen arteko erlazioak arautuko dira, Erregelamendu honi jarraiki, alde horiek lotzen dituen kontratuari aplikatu beharreko legearen arabera.

2. Lagatzen edo subrogatzen den kreditua arautzen duen legeak arautuko du kreditu hori transmititzerik dagoen, bai eta lagapen- nahiz subrogazio-hartzailearen eta zordunaren arteko erlazioak, zordunari laga nahiz subrogatzeari aurre egiteko baldintzak eta zordunak egindako prestazioaren izaera askatzailea ere.

3. Artikulu honetan aipatzen den *lagapen* kontzeptuaren barruan hau sartzen da: eskubideen transferentzia osoak, eskubideen transferentzia berme gisa eta eskubideen gaineko berme gisa lagatako bahiak eta bestelako eskubideak.

15. artikulua

Legezko subrogazioa

Kontratuko betebeharrak bati jarraiki, pertsona batek («hartzekoduna») eskubideak baldin baditu beste pertsona baten aurrean («hartzekoduna»), eta betebeharrak hori gauzatzeko beste pertsona batek hartzekodunari ordaindu behar badio edo, berez, dagoeneko ordaindu badio, beste pertsona horren betebeharrari aplikatu beharreko legeak erabakiko du, bien arteko erlazioa arautzen duen legeri jarraiki, hark zein neurritan gauzatu ahal dituen hartzekodunak zordunaren aurrean zituen eskubideak.

16. artikulua

Erantzukizun anizkoitza

Hartzekodun batek erreklamatzeko eskubidea baldin badu erreklamazio berari dagozkion hainbat zordunen aurrean, eta zordun horietako batek erreklamazio osoari edo zati bati erantzun baldin badio dagoeneko, zordun horrek gainerako zordunei ordaintzeko eskubidea zordunak hartzekodunarekin duen betebeharrean aplikatu beharreko lege beraren arabera arautuko da. Gainerako zordunek hartzekodunaren aurka izan ditzaketen salbuespenak aipatu ahal izango dituzte, hartzekodunarekin dauzkaten betebeharrak arautzen dituen legeak hori ahalbidetzen duen heinean.

17. artikulua

Legezko konpentsazioa

Aldeek ez badute hitzarmenik konpentsazio-eskubideari dagokionez, konpentsazioa arautuko da konpentsazio-eskubidea eskatzen den kredituari aplikatu beharreko legearen arabera.

18. artikulua

Frogatu beharraren karga

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erregelamendu honi jarraiki kontratuetako betebeharra arautzen duen legea aplikatuko da, kontratu bidezko betebeharrei dagokienez, lege-presuntzioak finkatzen dituzten edo frogatu beharraren karga zehazten duten arauak dauzkan heinean.
2. Kontratuak eta egintza juridikoak foru-legeak nahiz 11. artikuluan aipatutako edozein legek onartutako edozein frogakargaren bidez egiaztatu ahal izango dira, baldin eta froga-bide hori auzia aztertzen duen auzitegiaren aurrean erabil baldin badaiteke.

III. KAPITULUA

BESTE XEDAPEN BATZUK

19. artikulua

Ohiko bizilekua

1. Erregelamendu honen ondorioetarako, sozietate, elkarte nahiz pertsona juridiko baten ohiko bizilekua izango da bere administrazio nagusia dagoen lekua. Bere jarduera profesionala egiten duen pertsona fisiko baten ohiko bizilekua, berriz, pertsona horren kokaleku nagusia izango da.
2. Kontratua sukurtsal, agentzia edo bestelako establezimendu baten eragiketen barruan egiten bada, edo kontratuaren arabera prestazioa sukurtsal, agentzia edo establezimendu horrek eman behar badu, ohiko bizilekutzat hartuko da sukurtsal, agentzia edo establezimendu hori kokatuta dagoen lekua.
3. Kontratua sinatzen denean finkatzen dena izango da ohiko bizilekua.

20. artikulua

Berbidalketarako salbuespena

Erregelamendu honek herrialde bateko legea aplikatu beharra dagoela agintzen badu, herrialde horretan indarrean dauden arau juridiko materialak sartuko dira lege horren barruan, nazioarteko zuzenbide pribatuko arauak alde batera utzita, Erregelamenduak besterik ez badio behintzat.

21. artikulua

Foruaren ordena publikoa

Erregelamendu honetan agindutako edozein herrialdetako lege-xedapen bat aplikatzeko salbuespena egingo da bakarrik xedapen hori foruaren ordena publikoarekin nabarmenki bateraezina den kasuetan.

22. artikulua

Lege-sistema bat baino gehiago duten estatuak

1. Estatu bat hainbat lurralde-unitatez osatuta baldin badago, eta bakoitzak bere arau juridikoak baditu kontratuetako betebeharrei buruz, lurralde-unitate bakoitza herrialdetzat hartuko da Erregelamendu honi jarraiki aplikatu beharreko legea erabakitzeari dagokionez.
2. Estatu kide bateko lurralde-unitateek beren arau bereziak badituzte kontratuetako betebeharrei buruz, estatu horrek ez du Erregelamendu hau aplikatu behar izango lurralde-unitate horiei bakarrik eragiten dieten lege-gatazketan.

23. artikulua

Erkidegoko zuzenbideko beste xedapen batzuekiko erlazioak

7. artikuluan izan ezik, Erregelamendu hau aplikatzeak ez du baztertuko kontratuetako betebeharrei dagozkien legeen arteko gatazkei buruzko arauak arautzen dituzten Erkidegoko zuzenbideko xedapenak aplikatu beharra.

24. artikulua

Erromako Hitzarmenarekiko harremana

1. Erregelamendu honek 1980ko Erromako Hitzarmena ordezkaturako du estatu kideetan, Tratatuko 299. artikuluari jarraiki Erregelamendu hau aplikatzen ez zaien eta Hitzarmen horren aplikazio-esparruaren barruan dauden estatuetakoko lurraldeei dagokienez izan ezik.
2. Erregelamendu honek Erromako Hitzarmeneko xedapenak ordezkatzeko dituen aldetik, Hitzarmen hartara jotzen den guztietan Erregelamendu honetara jotzen dela ulertuko da.

25. artikulua

Dauden nazioarteko hitzarmenekiko harremana

1. Erregelamendu honek ez du eraginik izango Erregelamendua onartzeko garaian estatu kide batek edo gehiagok sinatua duten kontratuetakoko betebeharrak buruzko legeen arteko gatazkak arautzen dituzten nazioarteko hitzarmenen aplikazioan.
2. Hala ere, estatu kideen arteko harremanei dagokienez, Erregelamendu honek lehentasuna izango du bi estatu kideren edo gehiagoren artean bakarrik sinatutako hitzarmenen aurretik, hitzarmen horiek Erregelamendu honek araututako gaiei buruzkoak diren kasuetan.

26. artikulua

Hitzarmenen zerrenda

1. 25. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren hitzarmenak Batzordeari jakinarazi beharko dizkiote estatu kideek 2009ko ekainaren 17a baino lehen. Data horretatik aurrera, hitzarmenon amaieraren berri eman beharko diote estatuek Batzordeari.
2. 1. paragrafoan aipatzen diren jakinarazpenak jaso eta sei hilabeteko epean, Batzordeak honako hauek argitaratuko ditu *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean*:
 - a) 1. paragrafoan aipatutako hitzarmenen zerrenda;
 - b) 1. paragrafoan aipatutako amaierari buruzko jakinarazpena.

27. artikulua

Berrikusteko baldintza

1. Erregelamendu honen aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztu beharko die Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, 2013ko ekainaren 17a baino lehen. Behar izanez gero, Erregelamendu hau aldatzeko proposamenak erantsiko zaizkio txosten horri. Txostenean alderdi hauek jasoko dira:
 - a) aseguru-kontratuaren aplikatu beharreko legeen azterketa eta, hala badagokio, onartu beharreko xedapenek izango duten eraginaren ebaluazioa, eta
 - b) 6. artikuluaaren aplikazioaren ebaluazioa, Erkidegoko zuzenbideak kontsumitzaileak babestearen alorrean duen koherentziari dagokionez bereziki.
2. Eskubide bat lagatzeak nahiz subrogatzeak besteren aurrean duen eraginkortasunari eta lagatuko nahiz subrogatutako eskubideak besteren eskubideen aurrean duen lehentasunari buruzko txostena aurkeztu beharko die Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, 2010eko ekainaren 17a baino lehen. Txostenarekin batera Erregelamendu hau aldatzeko proposamena eta onartu beharreko xedapenek izango duten eraginaren ebaluazioa aurkeztuko dira, hala badagokio.

28. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aplikatzeko epeak

Erregelamendu hau 2009ko abenduaren 17tik aurrera egindako kontratuei aplikatuko zaie.

IV. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

29. artikulua

Indarrean sartzea eta aplikatzea

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

2009ko abenduaren 17tik aurrera aplikatuko da, 26. artikulua izan ezik, hori 2009ko ekainaren 17tik aurrera aplikatuko baita.

Erregelamendu honetako alderdi guztiak nahitaezkoak izango dira eta zuzenean aplikatuko dira estatu kide bakoitzean, Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuarekin bat etorriz.

Estrasburgon emana, 2008ko ekainaren 17an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARCIC